

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA

Getariako Balenciaga 4. HE-KO G.00 lurzatiaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen txosten estrategikoa

1. Aurrekariak.

2024ko urriaren 11n, Getariako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Administraziooko Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion Getariako Balenciaga 4. HEko G.00 lurzatiaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren tramitazioa abian jartzeko. Udalak eskaerarekin batera bidali ditu plan bereziaren dokumentazioa, ingurumen dokumentu estrategikoa eta planaren azterketa akustikoa.

Getariako Balenciaga 4. HEko g.00 lurzatiaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar da, betetzen direlako ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.c artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.B eranskinaren 3. atalean ezarritakoak.

Beraz, prozedura horren esparruan, eta eragindako administrazio, pertsona eta erakundeei abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutako kontsulten izapidea egin ondoren, Ingurumen Administraziooko Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen txosten estrategikoa egitea. Horrela, 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik eta egindako kontsulten emaitza ikusita, txosten horretan zehazten da plan bereziak eragin adierazgarri izan dezakeen ingurumenaren gainean, eta, beraz, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaion, edo, bestela, eragin adierazgarri ez duela ingurumen txosten estrategikoa ezarritakoaren arabera.

2. Plan Bereziaren helburuak eta proposatutako antolaketa.

2023ko maiatzaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Getariako Udalak sinatu zuten Getariako Kristobal Balentziaga kalean zuzkidura bizitokiak sustatzeko hitzarmena. Horren bidez, Getariako Udalak konpromisoa hartu zuen Etxebizitza Sailari doan lagatzeko Kristobal Balentziaga kaleko asistentzia ekipamendurako erabilerako lurzatia, Getariako Udalaren jabetzakoa, bai eta nahitaez laga beharreko aprobetxamenduen % 15 ere, hogeiren bat zuzkidura bizitokiak sustapen bat egiteko, herrian bizi diren pertsonen egungo beharrei erantzutearren.

Hauek izango dira plan bereziaren berariazko helburuak:

— Egungo Euskaltxeta kultur etxearen lurzatia (Balentziaga 4. HE) antolatzeke baldintzak egokitzea, lurzati horretan zuzkidura bizitokiak egiteko beharrei erantzuteko. Aurreikusten diren

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD

Informe ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela G.00 del ámbito urbanístico 4-Balenciaga de Getaria.

1. Antecedentes.

El 11 de octubre de 2024, el Ayuntamiento de Getaria ha solicitado a la Dirección General de Administración Ambiental de la Diputación Foral de Gipuzkoa el inicio de la tramitación de la evaluación ambiental estratégica simplificada del plan especial de ordenación urbana de la parcela G.00 del Ámbito Urbanístico 4-Balenciaga. Junto con la solicitud, el Ayuntamiento ha remitido el borrador del plan especial, su documento ambiental estratégico y un estudio acústico.

El plan especial de ordenación urbana de la parcela G.00 del Ámbito Urbanístico 4-Balenciaga debe ser objeto de una evaluación ambiental estratégica simplificada al darse las circunstancias establecidas en el artículo 6.2.c de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, y en el apartado 3 del anexo II.B de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.

Por tanto, en el marco de ese procedimiento, y tras la realización del trámite de consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas dispuesto en el artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, corresponde a la Dirección General de Administración Ambiental emitir el informe ambiental estratégico, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013 y en el anexo II.C de la Ley 10/2021 y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si el plan especial puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

2. Objetivos y ordenación propuesta en el plan especial.

El 23 de mayo de 2023, el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Getaria suscribieron el «Convenio para la Promoción de Alojamientos Dotacionales en Kristobal Balentziaga kalea del término municipal de Getaria», por el que el Ayuntamiento de Getaria se comprometía a ceder gratuitamente al Departamento de Vivienda la parcela de uso equipamental asistencial de Kristobal Balentziaga kalea, propiedad del Ayuntamiento de Getaria, así como el 15 % del aprovechamiento urbanístico de cesión obligatoria, con el objetivo de posibilitar una promoción de aproximadamente veinte alojamientos dotacionales a fin de atender las actuales necesidades de las personas que residen en el municipio.

Los objetivos específicos del plan especial serán los siguientes:

— Ajustar las condiciones de ordenación de la parcela del actual centro cultural Euskaltxeta, situada en el ámbito AU.4 Balenciaga, para responder a las necesidades asociadas a la ejecución

zuzkidura bizitokiko 20 unitateek eragingo dute gaur egungo eraikigarritasuna handitzea eta, beraz, plan berezi bat izapidetu behar da.

— Eraikin berriko erdisotoko solairuetan 4. HEko egoiliarren-tzako txandakako aparkalekuak ahalbidetzea, solairu horiek udalaren ondare titulartasuneko gisa mantenduta. Aparkaleku horrek hegoaldeko aldameneko lurzatian dagoena osatuko du. Antolamendu xehatuko kontu bat da hori, eta Plan Bereziak antolatu beharko du, lurzatiako ezartzen diren eraikuntza, erabilera eta jabari baldintzetan.

— Udalak lurzatiaren inguruan aurreikusten dituen irisgarritasun hobekuntzak txertatzea, plan berezi honetan aurreikusitako antolamendu berriarekin koordinatuta.

Ingurumen dokumentu estrategikoan egiten den alternatiben azterketan hiru aukera aztertzen dira.

— 0 alternatiba (esku ez hartzea): indarrean dauden arau subsidiarioetan jasotako hirigintza antolamenduari egungo parametroekin eustea. Alternatiba horrekin, ez lirateke lortuko inplikaturako bi administrazioek lortu nahi dituzten helburuak; hau da, ezin izango lirateke eraiki Eusko Jaurlaritzak nahi dituen zuzkidura bizitokiak, ezta Udalak auzoko aparkalekuen arazoa konpontzeko behar dituen txandakako aparkalekuak ere. Beraz, ez da irtenbide egokitzat jotzen komunitatearen interesetarako.

— 1. aukerak eraikin berriaren erdisotoko solairuetako aparkalekuak bidearen azpian jarritako lurpeko aparkalekuarekin eta hegoaldeko mugakide den lurzatiaren eraikinarekin lotzeko aukera aurreikusten du, ibilgailuentzako egungo arrapala partekatu dezaten biek. Beharrezkoa izango litzateke bi lurzatiak lotzeko obra bat egitea, egungo aparkalekuaren itxitura hormari eraginez, horrek eragindako zerbitzu azpiegiturei dagokienez izan dezakeen eraginarekin.

— 2. aukera izango litzateke eraikin berriko erdisotoko solairuetarako ibilgailuentzako sarbidea egungo aparkalekutik erabat bereiztea; horrela, sarrera Herrerieta kaletik egingo litzateke, kaleko sestra kotara sartuta. Zentzu horretan, jada ez luke zentzurik izango bi aparkalekuak konektatzeak, eta, beraz, bakoitzak modu independentean funtzionatuko luke, Udalaren kudeaketan horrek dakarren guztiarekin. Aparkalekurako sarbidea ekialdetik edo mendebaldetik egin daiteke.

1 aukeraren aldeko apustua egin da, horixe baita baliabideen erabilera hobekien optimizatzen duena; izan ere:

— Obren intentsitatea eta egikaritzea laburragoa da, eta horrek eragozpen gutxiago dakarkie bizilagunei obrak egin bitartean, Kristobal Balentziaga kaleko arrapalako egungo aparkalekuko sarbidea aprobetxatzen baita.

— Kristobal Balentziaga kalearen aldameneko kaleei gutxiago eragitea, ekipamendu berriaren sestrapeko aparkalekura sarbide independente batetik iritsi beharrak ekarriko lukeen trafikoa hazkundera desagertuko litzatekeelako, eta horrek ekarriko lukeelako bizilagunentzako eragozpen gutxiago izatea (ibilgailuen joan-etorriak eragindako kutsadura) eta bide segurtasun handiagoa.

— Udal kudeaketa optimizatzea, bi aparkalekuek bakar gisa funtzionatuko luketelako ondorio guztietarako.

Eraikin berriak erdisotoko 2 solairu izango ditu, aparkalekurako, eta beheko solairu bat eta goiko hiru solairu (2ES+B+III) komunitate-ekipamendurako (g.OO). Guztira, 2.080 m²-ko eraikigarritasuna izango luke sestra gainean eta 930 m²-koa sestra azpian.

Plan berezi hau zuzenean gauzatuko da.

de alojamientos dotacionales en dicha parcela. Las 20 unidades de alojamiento dotacional que se prevén conllevarán un aumento de edificabilidad respecto de lo actualmente materializado, por lo que es necesario la tramitación de un plan especial.

— Posibilitar aparcamientos rotatorios para residentes del ámbito AU.4 en las plantas semisótano del nuevo edificio, manteniéndose la titularidad patrimonial municipal en estas plantas. Este aparcamiento complementará el existente en la parcela contigua por el sur. Esta es una cuestión de ordenación por menorizada que el Plan Especial deberá ordenar en las condiciones de edificación uso y dominio que se establezca para la parcela.

— Incorporar las mejoras en accesibilidad que el Ayuntamiento prevé en el entorno de la parcela de manera coordinada con la nueva ordenación prevista en este Plan Especial.

En el análisis de alternativas que se efectúa en el documento ambiental estratégico, se hace un análisis de tres opciones.

— La alternativa 0 (no intervención) que supondría el mantenimiento de la ordenación urbanística recogida en las NNSS vigentes con sus actuales parámetros. Con esta alternativa, no se conseguirían los objetivos perseguidos por las dos administraciones implicadas, esto es, por un lado, no se podrían edificar los alojamientos dotacionales que el Gobierno Vasco pretende, ni tampoco los aparcamientos rotatorios que el Ayuntamiento necesita para dar solución al problema de aparcamiento del barrio. Por tanto, esta no se considera una buena solución para los intereses de la comunidad.

— La alternativa 1, contempla la posibilidad de conectar el aparcamiento en plantas semisótano del nuevo edificio con el aparcamiento subterráneo dispuesto bajo la vialidad y el edificio de la parcela colindante por el sur, de tal manera que ambos compartan la actual rampa de acceso para los vehículos. Sería necesario ejecutar una obra de conexión entre ambas parcelas, afectando al muro de cierre del actual aparcamiento, con lo que eso pueda suponer respecto de las infraestructuras de servicios afectadas.

— La alternativa 2 sería la de independizar por completo el acceso rodado a las plantas semisótano del nuevo edificio respecto del actual parking, de tal manera que la entrada se realizaría por Herrerieta kalea, accediendo a cota de rasante de calle. En este sentido ya no tendría sentido conectar los dos parkings, por lo que cada uno funcionaría de manera independiente, con lo que ello supone en la gestión por parte del Ayuntamiento. El acceso al aparcamiento podría realizarse bien desde el este o bien desde el oeste.

Se apuesta por la alternativa 1, porque es la que mejor optimiza el uso de recursos ya que supone:

— Menor tiempo en la intensidad y ejecución de las obras, lo que supone menos molestias a los vecinos durante la ejecución, al aprovechar el acceso actual al parking existente por la rampa de Kristobal Balentziaga kalea.

— Menor afección a las calles adyacentes a Kristobal Balentziaga kalea, al eliminar el incremento de tráfico que supondría el tener que llegar al aparcamiento bajo rasante del nuevo equipamiento por un acceso independiente, lo que se traduce en menos molestias para los vecinos (contaminación por el paso de vehículos) y mayor seguridad vial.

— Optimización en la gestión municipal, ya que los dos aparcamientos funcionarían como uno único a todos los efectos.

La nueva edificación constará de 2 plantas de semisótano destinadas a aparcamiento más baja y tres plantas altas (2SS+B+III) dedicadas al uso de Equipamiento Comunitario (g.OO). Tendría una edificabilidad total de 2.080 m² de techo sobre rasante y 930m² bajo rasante.

La ejecución de este plan especial será directa.

3. *Kontsulta ukitutako administrazioei, interesdunei eta jendeari, oro har.*

21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Plan Bereziaren eta ukitutako lurralde eremuaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak interesdun gisa identifikatu ditu eta kontsulta egin die administrazio eta erakunde hauei, organo sustatzaileak prestatutako dokumentazioa bidali ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Trantsizioko Zuzendaritza.
- Ihobe.
- EEE (Energiaren Euskal Erakundea).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Urola Kostako mankomunitatea.
- Urkome.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- EHNE.
- ENBA.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Eguzki Talde Ekologista.
- Ekologistak Martxan.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), jendeak oro har eta edozein interesdunek egoki irizitako ingurumen-ekarpenak egin ahal izateko.

3. *Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en las características del plan especial y del ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

- Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección General de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección General de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección General de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección General de Movilidad y Transporte Público de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección General de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.
- Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.
- Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.
- Dirección de Ordenación del Territorio y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.
- Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.
- Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.
- Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.
- Dirección de Industria y Transición Energética del Gobierno Vasco.
- Ihobe.
- Ente Vasco de la Energía (EVE).
- Agencia Vasca del Agua URA.
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.
- Mancomunidad de Urola Kosta.
- Urkome.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- EHNE.
- ENBA.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Grupo ecologista Eguzki.
- Ekologistak Martxan.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Administración Ambiental, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun eta ekarpen hauek jaso dira:

— Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du ez dela beharrezkoa horri buruzko txostenik egitea.

— Eusko Jaurilaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak txostenean jakinarazi du esparrua, arrisku sismikoaren aurreko larrialdi planaren arabera, IV-V intentsitate eremuan dagoela eta, ondorioz, udalerriak ez duela arlo horretako larrialdiko planik egin behar. Hala ere, eraikuntza berrietan kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onartutako eraikuntza sismo-erresistentearen araua. Halaber, adierazi du burutuko diren obretatik sor daitezkeen balizko drainatze lanak diseinatzerakoan kontuan izan beharko dela esparru horretako prezipitazio isomaximoak 250 mm/egun direla 500 urteko errepikatze denborarako, EAEko Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren arabera.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritzako eta Lurralde Oreako Zuzendaritzak jakinarazi du plan berezia hiri lurzoruan garatuko dela, eta, beraz, ez dela nekazaritza lurrik galduko.

— Eusko Jaurilaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du planaren esparruan ez dela ikusten kultura ondarearen gaineko afekzioarik.

— GFAko Kultura Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du plan bereziaren jarduketa eremuan ez dagoela kultura ondareko elementurik (arkitektonikoa edo arkeologikoa). Hala ere, Donejakue Bidea eremuaren ingurutik igarotzen da. Urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuak eta hura aldatzen duen 66/2022 Dekretuak arautzen dute haren babesa. Afekzio orok dekretu hauetan ezarritakoa bete beharko du.

— Eusko Jaurilaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak jakinarazi du plan bereziak ez duela inolako eraginik bere eskumeneko trenbide azpiegiturretan.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du plan bereziaren eremua Igarategi erreken polizia eremutik kanpo dagoela, eta, beraz, ez dela aurreikusten haren gainean eraginik izango denik Planaren garapenak gauzatzearen ondorioz. Hala ere, itsas-lehorreko jabari publikoaren eragin eremuan dago (500 m), eta, beraz, Kostaldeei buruzko Legearen 30. artikuluan eta Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorren 59. artikuluan ezarritakoa bete beharko da. Ildo horretan, eragin eremuari dagokion 500 metroko zerrandan, arkitectura pantailak sortzea edo bolumenak metatzea saihestu beharko da, eta eraikuntza dentsitatea ezingo da izan udal mugartean programatutako edo urbanizatzeko moduko lurzoru urbanizagarriaren batez bestekoa baino handiagoa. Era berean, proposatutako eraikinen antolaera eta altuera ingurunearekin harmonikoki egingo da, ikus-eremua mugatu gabe, kostaldeko paisaiaren harmonia hautsi gabe edo ikuspegia desitxuratu gabe. Bestalde, gogorazten du hirigintza garapen berriek beharrezkoak diren azaleretara murriztu beharko dutela zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak sartu beharko dituztela. Azkenik, hornidurari eta saneamenduari dagokienez, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari txostena eskatuko zaio, etorkizuneko garapenetako hondakin uren hornidura eta tratamendu egokia bermatzeko dauden azpiegituren nahikotasunari buruz.

Jasotako erantzun eta ekarpenen artetik, plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren edukietan eta helburuetan eragina duten alderdiak aztertu dira eta kontuan hartu dira ingurumen txosten estrategiko honen atal desberdinetan.

Era berean, jasotako erantzun guztiak eta txosten hau egin ondoren iristen direnak Getariako Udalari bidaliko zaizkie, plan berezia egitean eta izapidetzean kontuan har ditzan, egoki bada.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que no considera necesario emitir informe al respecto.

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco informa que el ámbito se sitúa en la zona de intensidad IV-V según el Plan de Emergencia ante el riesgo sísmico, con lo cual el municipio está exento de realizar un plan de emergencia al respecto. Sin embargo, se deberá tener en cuenta, en las nuevas construcciones, la norma de construcción sismo-resistente aprobada por el R.D. 997/2002. Asimismo, señala que en el diseño de las posibles obras de drenaje que pudieran derivar de las obras realizadas, se tendrán en cuenta que las isomáximas de precipitación en el ámbito son de 250 mm/día para un periodo de retorno de 500, según el Estudio Pluviométrico del Plan Integral de Prevención de Inundaciones de la CAPV.

— La Dirección de Agricultura y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG) informa que, el plan especial, se desarrollará en suelo urbano, por lo que no conlleva pérdida de suelos agrarios.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco indica que, en el ámbito del plan, no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural.

— La Dirección General de Cultura de la DFG informa que, el ámbito de actuación del plan especial no alberga ningún elemento de patrimonio cultural (arquitectónico o arqueológico). No obstante, el Camino de Santiago transcurre por las inmediaciones del ámbito. Su protección se encuentra regulada por el Decreto 2/2012, de 10 de enero y su modificación Decreto 66/2022. Cualquier afección al mismo deberá cumplir con lo establecido en estos Decretos.

— La Dirección de Infraestructuras del Transporte del GV informa que, el plan especial no tiene ninguna incidencia en las infraestructuras ferroviarias de su competencia.

— La Agencia Vasca del Agua (URA) informa que, el ámbito del plan especial, se encuentra fuera de la zona de policía del arroyo Igarategi, por lo que no es previsible que se produzcan afección sobre el mismo como resultado de la ejecución de los desarrollos del Plan. Sin embargo, se ubica en la zona de influencia (500 m) del Dominio Público Marítimo Terrestre, por lo que se deberá atender a lo establecido en el artículo 30 de la Ley de Costas y el artículo 59 del Reglamento General de Costas. En este sentido, en la franja de 500 m correspondiente a la zona de influencia, se deberá evitar la formación de pantallas arquitectónicas o acumulación de volúmenes, sin que, la densidad de edificación pueda ser superior a la media del suelo urbanizable programado o apto para urbanizar en el término municipal. Asimismo, la disposición y altura de las edificaciones propuestas se realizará de forma armónica con el entorno, sin limitar el campo visual, ni romper la armonía del paisaje costero o desfigurar su perspectiva. Por otra parte, recuerda que los nuevos desarrollos urbanísticos deberán minimizar la cuantía de la pavimentación u ocupación impermeable a aquellas superficies que sea estrictamente necesario e introducir sistemas urbanos de drenaje sostenible. Finalmente, en relación con el abastecimiento y el saneamiento, se solicitará informe al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa sobre la suficiencia de las infraestructuras existentes para garantizar el abastecimiento y el adecuado tratamiento de las aguas residuales de los futuros desarrollos.

Aquellos aspectos señalados por las respuestas y aportaciones recibidas que inciden en los contenidos y objetivos propios del procedimiento de evaluación ambiental estratégica del plan especial se han analizado y tenido en cuenta en los distintos apartados de este informe ambiental estratégico.

Asimismo, todas las respuestas recibidas, y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe, serán remitidas al Ayuntamiento de Getaria a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación del plan especial.

4. *Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen II.C eranskinean jasotako irizpideen arabera*ko analisisa.

1. Plan bereziaren ezaugarriak:

Plan berezia hiri lurzoru gisa sailkatutako eremu batean garatuko da. Ondorioz, LAGek ezarritako gidalerroei jarraituz, hirigunearen erdian dauden eta jada ezarrita dauden beharrezko zerbitzu guztiak dituzten lurzoru horiek ahalik eta gehien birziklatzea eta aprobetxatzea lortzen da, udalerrian zuzkidura bizitokien beharrari erantzuteko. Gainera, inguruko egoiliarrentzako aparkalekuak lortzen lagunduko du, eta inguruneke irisgarritasuna ere hobetuko da. Horregatik guztiagatik, plan bereziari esker, udalerriko eremu horren hiri antolamendua hobetuko da komunitatearentzat.

Plan berezia eraikuntza proiektu baten eta ingurune txiki baterako urbanizazio osagarriaren bidez garatuko da, beste plan eta programa batzuetan eraginik izan gabe, eta ingurumen arazo esanguratsurik izan gabe, kokapenagatik eta garrantzi txikiagatik. Era berean, ez da egokia Europako edo Espainiako ingurumen legedia ezartzeko.

2. Ondorioen eta eragina jasan lezakeen eremuaren ezaugarriak.

Plan bereziak eragindako lurzattia Getariako hirigunean dago, Herrerieta kalearen eta Kristobal Balentziaga kalearen artean, hiri lurzoru finkatugabea. Forma angeluzuzena du, ia trapezoidala; 31 metro ditu zatirik handienez, eta batez beste 16 metro inguru zatirik txikienez. Azalera, guztira, 527 m²-koa da. Lurzatiak desnibel handia du (6 metro ingurukoa), Herrerieta kaltetik Kristobal Balentziaga kalerako goranzko norakoan.

Eremuan dauden ingurumen faktore nagusiak eta plan berezitik eratorritako jarduketetarako planteatutako antolamenduak dagokionez baloratu beharreko efektuen eta arriskuen ezaugarriak honako hauek izango dira:

— Hidrologia. Plan bereziaren eremuan ez da ibilgurik edo isurketarik identifikatu. Eremuan eta inguruan ere ez da ur-punturik identifikatu.

— Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa. Esparrua jabari horren eragin-eremuan dago.

— Landaretza. Lurzorua erabat artifizializatuta eta iragazgaiztuta dago, eta egungo Euskaltxeta kultur etxearen eraikinak okupatzen du; beraz, ez dago inolako landaredirik.

— Fauna. Plan berezia antropizatuta eta aldatuta dagoen hiri eremu batean garatzen denez, bertako fauna espezieak hiri eremuetako eta hiri inguruko eremuetako espezie tipikoak izango dira.

— Naturagune babestuak eta azpiegitura berdea. Plan bereziaren eremua ez dago ezein gune babesturen barruan, eta ez dauka azpiegitura berdeko elementurik.

— Paisaia. EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogo Irekiaren arabera, Getariako udalerrira katalogatutako arro bisual batean dago. Baina, plan bereziaren eremua, Urola Kostako LPParen arabera, paisaia interes bereziko ezein eremuri ez dagokio.

— Kultura ondarea. Plan bereziaren eremuan ez dago kultura ondareko elementu babesturik. Hala ere, aipatu behar da Donejakue Bidea eremuaren ingurutik igarotzen dela. Ibilbidea «Kostaldekoko Bidea» deituta dago.

— Ingurumen arriskuak. Plan bereziaren eremuan ez dago ingurumen arrisku esanguratsurik, klima aldaketaren ondoriozko bero boladen arriskua izan ezik. Egindako azterlanen arabera, Getaria oso udalerririk kaltebera da arrisku horren aurrean.

4. *Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013 de Evaluación Ambiental y en el anexo II.C de la Ley 10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi.*

1. Características del plan especial:

El plan especial se desarrollará en un ámbito clasificado como suelo urbano. En consecuencia, siguiendo las directrices marcadas por las DOT, se consigue reciclar y aprovechar al máximo estos suelos, situados en el centro del núcleo urbano y que cuentan con todos los servicios necesarios ya implantados, para dar respuesta a la necesidad de alojamientos dotacionales en el municipio. Además, facilitará la obtención de aparcamientos para los residentes de la zona e irá asociado a una mejora de accesibilidad del entorno. Por todo ello, el plan especial supondrá la obtención por parte de la comunidad de una mejora en la ordenación urbana de esta área del municipio.

El plan especial se desarrollará mediante un proyecto de edificación y su urbanización complementaria en un entorno muy reducido, sin influencia sobre otros planes y programas y sin llevar aparejados problemas ambientales significativos dada su ubicación y pequeña entidad. Tampoco es pertinente para la implantación de la legislación comunitaria o nacional en materia de medio ambiente.

2. Características de los efectos y del área probablemente afectada:

La parcela afectada por el plan especial está situada en el núcleo urbano de Getaria, entre las calles Herrerieta Kalea y Kristobal Balentziaga, en suelo urbano no consolidado. Tiene forma rectangular, casi trapezoidal, con un desarrollo de 31 m en su dimensión mayor y en torno a los 16m de media en su dimensión menor y, una superficie total de 527 m². La parcela tiene un importante desnivel –de aproximadamente 6 metros– en dirección ascendente desde la calle Herrerieta a la calle Kristobal Balentziaga.

Los principales factores ambientales existentes en el ámbito y las características de los efectos y de los riesgos a valorar respecto a la ordenación planteada para las actuaciones derivadas del plan especial serán los siguientes:

— Hidrología. En el ámbito del plan especial no se identifica ningún cauce o escorrentía. Tampoco se ha identificado ningún punto de agua en el ámbito ni en su entorno cercano.

— Dominio Público Marítimo Terrestre. El ámbito se ubica en su zona de influencia.

— Vegetación. El suelo está completamente artifizializado e impermeabilizado ocupado por la edificación del actual centro cultural Euskaltxeta, y, por tanto, no hay ningún tipo de vegetación.

— Fauna. Dado que el plan especial se desarrolla en un ámbito de carácter urbano que está antropizado y alterado, las especies faunísticas presentes serán aquellas típicas de áreas urbanas y periurbanas.

— Espacios naturales protegidos e infraestructura verde. El ámbito del plan especial no forma parte de ningún espacio protegido ni cuenta con ningún elemento de infraestructura verde.

— Paisaje. Según el Catálogo abierto de paisajes singulares y sobresalientes de la CAPV el municipio de Getaria pertenece a una cuenca visual catalogada. Pero, el ámbito del plan especial en sí no pertenece a ninguna área de especial interés paisajístico según el PTP de Urola Costa.

— Patrimonio Cultural. En el ámbito del plan especial no existen elementos protegidos del patrimonio cultural. No obstante, cabe señalar que el Camino de Santiago transcurre por las inmediaciones del ámbito. El recorrido pertenece a la variante «Camino de la Costa».

— Riesgos ambientales. No existen riesgos ambientales significativos en el ámbito del plan especial excepto el riesgo por olas de calor debido al cambio climático. Según los estudios realizados, Getaria se considera un municipio muy vulnerable a este riesgo.

— Soinu kalitatea. Plan bereziaren dokumentazioaren barruan, hots inpaktuari buruzko azterlan bat sartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Azterlan horren arabera, eremuaren inguruko foku akustiko nagusiak eremutik hurbil dauden kaleak dira, baina ibilgailuen trafikoko bolumen txikia dute. Azterlan akustikoan ondorioztatzen denez, zarata mailak, lurretik 2 metrora eta fatxada mailan, gaur egun zein hemendik 20 urterako aurreikuspenean, aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuen azpitik daude hiru ebaluazio aldietan (eguna, arratsaldea, gaua).

Horrenbestez, aurreko kontsiderazio guztiak kontuan hartuta, ondorioztatzen da Balenciaga 4. HE hirigintza eremuko G.00 lurzatiaren hiri antolamenduko plan berezian proposatutako antolamenduak ez dakarrela ingurumen inpaktu kaltegarri nabarmenik; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura egitea, betiere kontuan hartzen badira, txosten honetan xedatutakoaren arabera, planean bertan eta hura garatzeko tresnetan (eraikuntza proiektuak eta urbanizazio osagarria) zehaztu eta sartu behar diren irizpideak eta neurri babesleak eta ingurumen integraziokoak.

Horrenbestez, aurreko guztiari jarraikiz, eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta Jasangarritasun Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 1eko 29/2024 Foru Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak ingurumen-txosten estrategikoa egin du, baldintza hauetan:

Lehenengoa. Balenciaga 4. HEko G.00 lurzatiaren hiri antolamenduko plan bereziari ez zaio ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar; izan ere, 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako analisiaren arabera, eta egindako kontsulten emaitza kontuan hartuta, ondorioztatzen da ez duela eragin negatibo nabarmenik izango ingurumenean, betiere ingurumen txosten estrategiko honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Bigarrena. Balenciaga 4. HEko G.00 lurzatiaren hiri antolamenduko plan bereziak eta haren ingurumen dokumentu estrategikoak zehaztaperik hauek jasoko dituzte ingurumena babesteko eta zuzentzeko neurriei dagokienez:

1. Ingurumen dokumentu estrategikoa: Ingurumen dokumentu estrategikoak babes eta zuzenketa neurri gehigarri hauek jaso beharko ditu:

— Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 48. artikuluan jasotakoa betez, hirigintza garapen berriek zoladuraren edo okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa minimizatu beharko dute behar-beharrezkoa den azaleretara, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak (SUDS) sartu beharko dituzte (zoladura iragazkorren erabilera, ekaitzetarako tangak edo gailuak, etab.).

2. Dokumentu estrategikoa plan berezian integratzea eta txertatzea.

Plan bereziaren araudian aipatu beharko da ingurumen dokumentu estrategikoaren neurri babesle, zuzentzaile eta ingurumen integraziokoak ez ezik, ingurumena zaintzeko programa ere loteslea eta nahitaez bete beharrekoa izango dela. Era berean, zehaztaperik horiek kontuan hartu beharko dira plan berezia garatzeko tresnetan –urbanizazio eta eraikuntza proiektuak–. Gainera, urbanizazio eta eraikuntza proiektuetan, aurrekontu bat sartu beharko da, ziurtatzeko neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa abian jartzen direla, eta horiek gauzatzeko arduradunak ezarriko dira.

— Calidad sonora. Dentro de la documentación del plan especial, se ha incluido un estudio de impacto acústico según lo establecido en el Decreto 213/2012, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco. De acuerdo con dicho estudio, los focos acústicos principales en torno al ámbito son las calles próximas al ámbito, que cuentan con un volumen de tráfico rodado bajo. En el estudio acústico se concluye que los niveles de ruido a 2 m del terreno y a nivel de fachada, tanto en la actualidad como en un escenario futuro a 20 años están por debajo de los objetivos de calidad acústica aplicables en los tres periodos de evaluación –día, tarde, noche–.

Por tanto, teniendo en cuenta el conjunto de las consideraciones anteriores, se concluye que la ordenación propuesta en el plan especial de ordenación urbana de la parcela G.00 del Ámbito Urbanístico 4-Balenciaga, no implica impactos ambientales adversos significativos, por lo que no se considera necesario efectuar un procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, siempre y cuando se tengan en cuenta de acuerdo con lo dispuesto en este informe, los criterios y medidas protectoras y de integración ambiental que deben de detallarse e incorporarse en el propio plan y en los instrumentos de desarrollo del mismo (proyectos de edificación y su urbanización complementaria).

En consecuencia, de acuerdo con todo lo anterior y según lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental y en el artículo 75 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, y en virtud de lo previsto en el Decreto Foral 29/2024, de 1 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Sostenibilidad, esta Dirección General de Administración Ambiental emite Informe Ambiental Estratégico en los términos siguientes:

Primero. No someter al plan especial de ordenación urbana de la parcela G.00 del Ámbito Urbanístico 4-Balenciaga, a evaluación ambiental estratégica ordinaria ya que, de acuerdo con el análisis efectuado de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013 y en el anexo II.C de la Ley 10/2021, y teniendo en cuenta el resultado de las consultas realizadas, se concluye que no va a producir efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se cumplan los términos que se establecen en el apartado segundo de este informe ambiental estratégico.

Segundo. El plan especial de ordenación urbana de la parcela G.00 del Ámbito Urbanístico 4-Balenciaga y su documento ambiental estratégico incluirán las siguientes determinaciones en relación con las medidas de protección y corrección ambiental:

1. Documento ambiental estratégico: El documento ambiental estratégico deberá incluir las siguientes medidas protectoras y correctoras adicionales:

— En cumplimiento de lo recogido en el artículo 48 del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, los nuevos desarrollos urbanísticos deberán minimizar la cuantía de pavimentación u ocupación impermeable a aquellas superficies que sea estrictamente necesario, e introducir sistemas urbanos de drenaje sostenible SUDS (uso de pavimentos permeables, tanques o dispositivos de tormenta etc.).

2. Integración e incorporación del documento estratégico en el plan especial.

Se deberá mencionar en la normativa del plan especial que, además de las medidas protectoras, correctoras y de integración ambiental del documento ambiental estratégico, también el programa de vigilancia ambiental que incorpora será vinculante y de obligado cumplimiento. Sus determinaciones, deberán, asimismo, tenerse en cuenta en los instrumentos de desarrollo del plan especial –proyectos de urbanización y edificación–. Además, tanto en los proyectos de urbanización como de edificación, se deberá incluir un presupuesto para asegurar la puesta en marcha tanto de las medidas protectoras y correctoras, como del programa de vigilancia ambiental y se establecerán los responsables de su ejecución.

Hirugarrena. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen txosten estrategiko hau nahitaezkoa eta loteslea da.

Laugarrena. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen txosten estrategiko honek indarraldia galduko du eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio, behin Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta lau urteko gehieneko epean aldaketa onartzen ez bada.

Bosgarrena. Ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta zuzendaritza honen webgunean argitaratzeko agintzen da.

Donostia, 2025eko otsailaren 4a.—Miriam Oca Pascual, Ingurumen Administrazioaren zuzendari nagusia. (1023)

Tercero. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 75.1 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, el presente informe ambiental estratégico tiene la naturaleza de un informe preceptivo y vinculante.

Cuarto. De acuerdo a lo establecido en el artículo 75.5 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, el presente informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la aprobación de la modificación en el plazo máximo de cuatro años desde su publicación.

Quinto. Ordenar la publicación del presente informe ambiental estratégico en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 4 de febrero de 2025.—La directora general de Administración Ambiental, Miriam Oca Pascual. (1023)